



egilespena haien borondatearekin bat egiteaz,
borondate horri argibideak emanaz,
legezkotasunarekin bat egiteaz, eta agerkari publiko
honetan jasota dagoen guztiaz, dokumentua bera
idatzita dagoela paper tinbreduneko sei foliotan, N
sailekoak, 1956460 B zenbakia eta hurrenez hurreneco
bostak, nik, notarioak, fede ematen dut.-----

Agerleen sinadura eta errubrikak daude. Sinatua:
Andrés-María Urrutia Badiola, errubrikatua eta
zigilatua.-----

----- DOKUMENTU ERANTSIAK:-----


I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena

Baserri Antzokia izenarekin, fundazioa eratu da,
ekainaren 17ko 12/1994 Legearekin eta indarreko
xedapen arauemaileekin bat etorritz.

Baserri Antzokia izeneko fundazioa, izatez,
irabazteko asmorik gabeko erakundea da. Sortzaileek
hala nahita, fundazioaren ondarea iraunkortasunez
erabiliko da, interes orokorreko helburu jakin
batzuk betetzeko; helburu horiek deskribatuta daude
estatutu hauen 3. artikuluan.

2. artikulua.- Araubidea, nortasuna eta gaitasun
juridikoa




Fundazioak nortasun juridiko berezkoa eta independentea izango du, eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik; eta, erabateko gaitasun juridikoaz gain, jarduteko gaitasuna ere badu. Fundazioaren mugak izango dira, bakar-bakarrik, eratzaileek eratze-egintzan bertan zein borondate-aitorpen egin eta aitorten horren ondorioz ezarritakoak; estatutu hauetan ezarritakoak; eta, orobat, lege-xedapen aplikagarrietan, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legean ezarritakoak.

Ondorenez, eta babesletzak jaso beharreko komunikazioei kalterik egin gabe, fundazioak mota guztietako ondasun higigarri nahiz higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki, xedatu, besterendu eta zamatuta ahal izango ditu, edozein bidetarik; orotariko egintzak edo kontratuak egin ahal izango ditu; maileguak jaso eta ordaindu ahal izango ditu; transakzioak egin ahal izango ditu, eta gobernu-bidera nahiz epai-bidera jo ahal izango du, epaitegietan, auzitegietan eta erakunde publiko nahiz pribatuetan mota guztietako akzioak eta salbuespenak egikaritzeko, betiere antolamendu juridikoan ezarritakoaren mende.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak

3.1. Helburu nagusia. *Baserri Antzokia* Fundazioaren helburu nagusia honako hau da: Txorierrin euskara eta euskal kultura sustatzea, bultzatzea eta indartzea.

Helburu nagusi hau lortzeko ekintza-lerro nagusiak honako hauek izango dira: Txorierrin euskal giroa berpiztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskal elkarte eta euskaltzale guztien indarrak batzea, eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea.-----

3.2. Helburuak betetzeko ekintza orokorrak. Helburuok bete ahal izateko, indarrean dauden legeek ezarritakoa jagonez, ondorengo ekintzak burutu ahal izango dira: kultura-, kirola-, folklore-, turismo-,



gastronomia-, dibulgazio eta jolas-ekintzak.

3.3. Helburuak betetzeko ekintza espezifikokoak.
Aurreko atalean esandako ekintzak utzi gabe, helburuok lortzeko Fundazioak beste hau ere egin eta antolatu dezake:

-Helburuak lortzeko, edozein jarduera ekonomiko garatu eta baliabideak pilatu.

-Helburuak lortzeko, edozein motatako eta izeneko ondasunen jabe izan edo erosi, baita edozein motatako ekitaldi eratu edo kontratu sinatu ere.

-Legedian esaten dena eta Estatutuotan dagoena jagonez, edozein motatako ekintza aurrera eramán. Helburu nagusi hauen barruan, jarduera zehatz garrantzitsuenak eta hurrenekoenak hauek izango dira:

1) "Baserri" itxurako etxe baten eraikuntza, Fundazioaren egoitza eta bere helburuak bete ahal izateko arreta-gunea izan dadin.

2) Eraikin honetan, besteak beste, antzoki gunea antolatu (agertokia...) Fundazioaren helburuak bete ahal izateko.

3) Eraikin honetan, besteak beste, ostalaritza gunea antolatu (taberna, jatetxea...) Fundazioaren helburuak bete ahal izateko ekonomia iturri nagusia izan dadin.

4) Euskara sustatzeko eta zabaltzeko argitalpenak (aldizkariak, liburuak, txostenak...), paperezko formatuan, digitalean zein beste edozein formatutan.

5) Fundazio-helburuetako sektoreentzako emariak edo aldizkako diru-laguntzak onetsi.

6) Fundazio-helburuak sozializatzeko eta ezagutarazteko kongresuak edo lehiaketak antolatu.

7) Fundazio-helburuak sustatzeko bekak, laguntzak edo sariak eman.

8) Baliabideak pilatu.

9) Euskal kulturaren gaineko eta inguruko ikerkuntza eta berrikuntza bultzatu.

10) Fundazioaren berezko helburuak lortzeko beste edozein aktibitate.

4. artikulua.- Helburuak garatzea

Fundazioak bere helburuak garatu ahal izango ditu, berak egoki ikusten duen moduan, baita beste entitate eta erakunde batzuetan parte hartuz ere. Horretarako muga bakarrak izango dira eratze-agirian ezarritakoak, estatutu hauetan finkatutakoak, eta, betiere, legeek eratorritakoak.

5. artikulua.- Egoitza.

Fundazioaren egoitza Derion, Bizkaian, egongo da (Talleri Kalea, 6. zenbakian). Patronatuak askatasunez erabaki ahal izango du egoitza-aldaketa, eta, hori egitekotan, aldaketa komunikatu beharko dio Fundazioen Erregistroari. Era berean, fundazioaren helburuak betetzean beharrian bereziak sortu ahal direnez gero, establezimenduak, ordezkaritzak nahiz bulegoak finkatu ahal izango dira, eta patronatuaren ahalmena izango da horien guztien egoitzak erabakitzea.

6. artikulua.- Lurralde-eremua

Fundazioak bere helburuak garatuko ditu, batik bat, Euskal Herrian, eta, bereziki, Txorierrin (Bizkaian).

7. artikulua.- Eskumen-esparrua.

Fundazioak interes orokorreko zein helburu izan eta helburu horien barruan jardun beharko du; eta, bere onuradunak aukeratzeko orduan, objektibotasun-



eta inpartzialtasun-irizpideak aplikatuko ditu, inolako bereizkeriarik egin gabe. Ildo horretatik, onuradunak aukeratzeko, aurretiaz deialdia egingo da, eta haiek hautatzeko erregelak eta prozedurak ezarriko dira. Betiere, kontuan hartuko dira hautagaien merituak eta gaitasunak.

Fundazioak, halaber, azterketa- eta ikerketa-lanak sustatuko ditu; eta, horretarako, laguntza ekonomikoak, materialak eta azpiegiturako laguntzak emango dizkie onuradun izateko merituak dituztenei, haien jakiteak, ospea, gaitasuna eta jarduna kontuan hartuta. Lantaldeak ere fundazioaren onuradun izenda daitezke, baldin eta artikuluko honek zein erakunde edo pertsona fisiko aipatu eta halakoek zuzentzen badituzte lantaldeok.

Inork ere ezin izango dio, ez banaka, ez taldeka, fundazioari edo horren patronatuari alegaziorik egin, onurak lortzeko eskubidea duelako, onurok oraindik eman ez badira; eta, orobat, ezin izango dio agindu pertsona jakin batzuei onurok aitortzea.

Onuradunak zehatz-mehatz izendatzeko, patronatuak kontuan hartuko du, pertsona juridikoen kasuan, erakundeek eta entitateek zein jarduera burutu duten eta zein ospe aitortu zaien; eta horren arabera erabakiko du zein erakundek eta entitatek merezi duen fundazioaren laguntza materiala, ekonomikoa, irakaskuntzako laguntza nahiz jakiteena jasotzea.

Pertsona fisikoak, banaka hartuta, ez dira inoiz onuradun izango. Era berean, eratzaillei ezin izango zaizkie eman fundazioaren prestazioak, ezta haien ezkontideei edota laugarren gradurainoko ahaideei ere.

Baldin Fundazioak bere onuradunei zenbateko bat

ordaintzeko eskatzen badie eskaintzen dizkien zerbitzuen aldera, bakarrik zenbateko hori ordaintzen dutenak hartu ahal izango dira onuraduntzat.

Bestalde, fundazioaren izaera dela eta, onuradunen kopurua mugatu izan behar denean, fundazioaren patronatuak modu ezeztazinean hautatu eta zehaztuko ditu onuradun horiek; horretarako, kontuan hartuko ditu hautagaien merituenak, beharrianak, gaitasun ekonomikoa eta aprobetxatze-aukerak, bai eta bestelako ezaugarri objektiboak ere.

8. artikulua.- Publizitatea

Ustezko onuradunek eta interesdunek fundazioaren jardueren berri izan dezaten, patronatuak behar besteko publizitatea emango die fundazioaren helburu eta jarduerari.

II. TITULUA. PATRONATUA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua da, izatez, fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkaritzarako organo gorena. Patronatuaren ardurapean egongo dira fundazioaren kudeaketa zuzendu eta kontrolatzeko ahalmen guztiak, baldin eta ahalmenok beharrezkoak badira fundazioaren helburuak gauzatzeko. Zehatz-mehatz, patronatuak administratuko ditu fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak.

10. artikulua.- Osaera eta iraupena

Patronatua, gutxienez 3, eta gehienez 9 kidez egongo da osatuta, era honetara banatuta: 3, sortzaileak eta biziartekoak, fundazioaren sorreran eta bere sustatzaileek izendatuta; beste 2, Txorierriko Euskara elkarteek proposatuta; beste 2, Txorierriko Mankomunitateak aginduta; eta beste 2, Fundazioaren enpresa-kideek hautatuta.

Sortzaileen 3 karguena kenduta, beste patronuen iraupena 4 urtekoa izango da, eta mugarik gabe gura den beste laurteko denboralditarako hautatuak izan



daitezke.

Txorierriko Mankomunitateko ordezkariak unean-unean indarrean dauden kargu hautatuak izan beharko dute (alkateak edo zinegotziak).

Euskeraren aldeko elkarteen ordezkariak elkarte proposatzaileen zuzendaritzako karguak izango dira.

11. artikulua.- Patronuak izendatzea eta postu hutsak betetzea

Eratzaileak eratze-eskrituran izendatuko du lehenengo patronatua.


Patronu berriak izendatu behar direnean, patronatua zabaldu egin delako edota patronatukideen ordezkioak izendatu behar direlako, patronatuak egingo du izendapena, eta, horretarako erabakia hartzeko, patronatukideen gehiengoak gutxienez izendapenaren aldeko botoa eman beharko du.

Patronu izendatu berriek beren-beregi onartu beharko dute kargua, legearen 12. artikuluan aipatutako formuletatik bat erabilita.

Onarpena Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Patronatukideen postuak hutsik geratzen badira, heriotza, ezgaitasun, ezgaikuntza, heriotza-adierazpen, bazterketa nahiz bateraezintasunaren ondorioz, agintaldia amaitzearen ondorioz, uko egitearen ondorioz, postua utzaraztearen ondorioz, eta, oro har, gobernu-organoaren kidea ordeztu edo kargutik kentzeko inguruabarretatik edozeinen ondorioz, prozedura bera erabiliko da postua betetzeko; postua ezin izango da hutsik egon, 6 hilabete baino gehiago.

Patronatukideen betebeharra da organo horrek



gutxieneko kide-kopurua izatea, estatutu hauen 10. artikuluekin bat etorriz, erabakiak baliozkotasunez har daitezzen.

Epaileak patronatuko kideen kargua eteteko erabakia hartu ahal izango du, baldin eta kide horien aurka erantzukizun-akzioa egikaritu bada, ez dutelako euren kargua arretaz bete, legearekin eta estatutu hauen 20. artikuluekin bat etorriz.

Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira gobernu-organoaren kideak ordezte, karguak utzaraztea, bai eta horiek etetea ere.

12. artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko dute euren kargua. Hala ere, euren eginkizunak betetzean zenbait gastu badituzte, eta behar bezala egiaztatu ahal badituzte gastuok, horiek ordaindu ahal izango zaizkie.

13. artikulua.- Fundazioaren lehendakaria

Patronatuak, bere kideen artean, lehendakaria aukeratuko du. Lehendakariari dagokio patronatuaren bileretarako deialdia egitea, bere kabuz edo patronatukideen herenak behintzat hala eskatuta; patronatuko bileretan, eztabaidak zuzenduko ditu, eta haren erabakiak betearaziko ditu.

Patronatuaren lehendakariak gobernu-organo horren gehieneko ordezkaritza izango du. Hari dagozkio, organo horren kide guztiek dituzten ahalmenez gain, estatutu hauek patronatuaren lehendakariari ematen dizkiotenak. Horrez gain, fundazioa ordezkatzeko du, patronatuaren eta fundazioaren beste organoen erabakien ondoriozko egintza eta kontratu guztietan, bai eta auzietan, espedienteetan, arazo administratiboetan, gobernu-arazoetan, epaiketa-arazoetan nahiz epaiketatik kanpokoetan ere, halakoak aurkeztuz gero. Lehendakariak ahalmena du, orobat, prokuradoreei nahiz abokatuei auzietarako ahalorde orokorrak emateko, aipatu helburua bete dadin.



14. artikulua.- Lehendakariordea

Patronatuak, bere kideen artean, lehendakariordea izendatu ahal izango du; horretarako, patronatuko kide gehienek izendapenaren aldeko botoa eman beharko dute.

Lehendakariordea lehendakariaren ordezkoa izango da, hori absente edo gaixorik dagoenean; egoera horiek egiaztatzeko, nahikoa da haiek egindako adierazpen hutsa. Lehendakaria eta lehendakariordea, bi-biak, absente egonez gero, haien ordezkoa izango da patronatuko kideen artean zaharrena.

15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak, bere kideen artean nahiz horietatik kanpo, idazkaria izendatu ahal izango du. Idazkariaren ardurapean egongo da fundazioaren administrazio-lanak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea, aktak prestatzea, eta, behin aktak onetsi eta lehendakariaren ikus-onespena lortu eta gero, aktok akta-liburura alderatzea.

16. artikulua.- Diruzaina

Patronatuak, bere kideen artean nahiz horietatik kanpo, egoki baderitzo, diruzaina izendatu ahal izango du. Diruzainaren eginkizunak izango dira patronatuak haren ardurapean jartzen dituenak.

Diruzainaren ardurapean jar daitezke, besteak beste, hurrengo eginkizunak:

- 1.- Fundazioaren funtsak bildu eta zaintzea.
- 2.- Sarrera nahiz gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzea.
- 3.- Inbentarioen liburua, kontuena, aurrekontuena eta egunkari-liburua eramatea.

17. artikulua.- Fundazioaren zerbitzupeko langileak

Era berean, patronatuak gobernu-organo horren kideetatik baten edo hirugarren baten ardurapean jarri ahal izango du kudeaketa gauzatzea edo fundazioaren izenean bestelako jarduerak burutzea; hala eginez gero, eginkizunen arabera egokia den ordainsaria emango da.

18. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumenak bere barruan hartzen du fundazioaren gobernuak behar duen guztia, eta, bereziki, honako hau:

1.- Fundazioaren orientazioa zein izango den aipatzea, hark hobeto bete ditzan bere helburuak.

2.- Baliabide ekonomiko eta finantza-baliabide guztiak administratzea, baliabideon jatorria edozein izanik ere.

3.- Inbentarioa, egoera-balantzea, emaitzen kontua, aurreko ekitaldiari buruzko oroitidazkia, eta, epealdi horri dagokionez, sarrera nahiz gastuen aurrekontu-likidazioa onestea.

4.- Hurrengo ekitaldirako, sarrera eta gastuen aurrekontua onestea, bai eta horiek azaltzeko txostena ere.

5.- Barne araubidea onestea, hori komeni bada.

6.- Batzorde eskuordeak sortzea, horien kideak izendatzea, haien ahalmenak zehaztea eta ahalduntze orokorrak nahiz bereziak ematea, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

7.- Zuzendaritzako karguak, kargu betearazleak eta aholkularitzakoak izendatzea; eta, berebat, gainerako langile teknikoak, administratiboak, lanekoak eta mendeakoak kontratatzea, beharrezkoak direnetan, estatutu



hauen 17. artikuluan agindutakoarekin bat etorritz.

8.- Orotariko egintzak eta kontratuak formalizatu eta onestea, nahiz zibilak, nahiz merkataritzakoak, nahiz lanekoak, nahiz administratiboak, nahiz beste edozein motatakoak, halakoak beharrezkoak badira fundazioaren helburuak hobeto betetzeko.

9.- Bidezkoak diren proposamenak erakunde eskudunei helaraztea, arazo jakin horietan goragoko organoak erabaki behar duenean.

10.- Enpresek, entitateek, erakundeek nahiz pertsona fisikoek elkarlan teknikorako programetan eta langile kualifikatuen trebakuntzarako programetan parte har dezaten sustatzea, horretarako funtsak jarritz eta lankidetzat-hitzarmenak sinatuz.


11.- Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartu nahiz arbuizatzea, hori fundazioarentzat komenigarri bada, eta, betiere, babesletzari horren berri emanez.-----

12.- Fundazioaren estatutuak aldaraztea, hori beharrezkoa baldin bada, eratzailearen borondatea hobeto betetzeko.

19. artikulua.- Eskuordetzeak, ahalduntzeak eta batzorde eskuordeak

Patronatuak bere kideetatik bati edo batzuei eskuordetu ahal dizkie bere ahal guztiak edo horietatik zenbait, hurrengoak izan ezik: kontuak eta aurrekontuak onestea, kudeaketa arrunta gainditzeko duten egintzak burutzea eta babesletzaren baimena behar dutenak gauzatzea.

Handwritten notes and stamps at the bottom right, including a date stamp: 1980/12/10.



20. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

a) Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearaztea, legean eta fundazioaren estatutuetan xedatutakoarekin bat etorritz.

c) Kargua lege-ordezkariei dagokien
arretarekin betetzea.-----

Babesletzak baimena eman ezik, patronatuko kideek ezin izango dute kontraturik egin fundazioarekin, ez euren izenean, ez inoren izenean.

1.- Patronatuko kideek erantzukizuna dute, fundazioari begira, legeek ezartzen duten neurri eta kasuetan.

2.- Ez dute erantzukizunik izango, ordea, baldin eta erantzukizuna zein erabakik ondorioztatu eta erabaki horren aurka jarri



badira, edo erabaki hori hartzeko orduan ez badute parterik hartu, salbu eta frogatzen denean, erabakiaren berri izanik, ez zutela euren desadostasuna adierazi.

3.- Gobernu-organoei erantzukizuna galdatzeko akzioa egikaritzen bada jurisdikzio arruntean, hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da; orobat, horren ondorioz emandako epai irmoa ere.

4.- Babesletzak erantzukizun-akzio hori egikaritu ahal izango du, bere kabuz edo interes legitimoa duenak zentzuz hala eskatuta. Eratzaileak ere akzio hori egikaritu ahal izango du, baldin eta patronatuko kideen jarduna fundazioaren helburuen aurkakoa bada edo helburu horientzat kaltegarria bada.

2. KAPITULUA. PATRONATUAREN JARDUNBIDEARI BURUZKO ARAUBIDEA

23. artikulua.- Barne jardunbidea

Patronatuak, urtean zehar, bi bilera egin behar ditu gutxienez. Urtean urteko lehenengo sei hileetan bildu behar da, nahitaez, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jardueren oroitidazkia, aurreko ekitaldi horretako egoera-balantzea eta emaitzen kontua onesteko, estatutu hauen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, laugarren hiruhilekoan, eta aurretiaz deialdi egokia eginda, hurrengo ekitaldirako aurrekontua onetsiko da, eta hori babesletzari igorriko zaio, abenduaren 31 baino lehenago.

Patronatuaren bileretarako deialdiak idatziz egin behar dira. Deialdian, lehendakariak



erabakitako gai-zerrenda agertuko da; gai-zerrenda erabakitzeko, lehendakariak kontuan hartuko ditu gobernu-organoaren kideek egindako iradokizunak. Bilera-data zein izan eta hori baino 15-30 egun balioudun lehenago gutxienez egin behar da deialdia, presako kasuetan izan ezik; presako kasu horietan, epea laburtu eta egutegiko 3 egunekoa izan daiteke.

24. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da, lehenengo deialdian, kideen erdiak eta bat gehiago bertaratzen direnean, zuzenean edo ordezkari bidez.

Aurreko lerrokadan aipatu quoruma lortu ezik, patronatua ordu bete beranduago bilduko da; bigarren bilera horretan, nahikoa izango da edozein kide-kopuru bertan egotea, baldin eta, patronatuaren herena gutxienez bertan egonik, horien artean badira lehendakari edo lehendakariorde titularrak.

Aurreko lerrokadetan aipatutakoa gorabehera, patronatu-bilerarako deialdia egin dela ulertuko da eta patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da, baldin eta bertan badaude kide guztiak eta guztiek ere onartzen badute, aho batez, bilera egitea.

Erabakiak hartzeko, botoen gehiengoa lortu behar da, honako kasu hauetan izan ezik:

1.- Aldarazte, bat-egite eta azkentzeari buruzko erabakien kasuan, nahitaezkoa izango da kideen bi herenek erabakiaren aldeko botoa ematea.

2.- Estatutuotan botaziorako beste quorum bat ezartzen denean, hori bete beharko da.

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa erabakigarria izango da.

Patronatuaren bilera bakoitzari buruz, patronatuaren idazkariak akta egingo du. Aktak zehaztuko du zein tokitan eta egunetan egin den bilera, nor bertaratu den, zein gai eztabaidatu den, zein erabaki hartu den eta zein gai geratu den erabaki gabe.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA



I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZTA
25. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Orotariko ondasunek eta eskubideek osatu ahal izango dute fundazioaren ondarea, baldin eta balio ekonomikoa badute.

Fundazioak arau aplikagarriak beteko ditu, xedatze- eta administratze-egintzak burutzeko; eta berari dagozkion helburuetarako erabiliko ditu haien fruituak edo errentak, betiere estatutu hauekin bat etorritz.

26. artikulua.- Baliabideak

Fundazioaren ondareak honako osagai hauek izango ditu:

a) Hasierako zuzkidura, eratze-eskrituran agertzen dena.

b) Eratzaileen (eta atxikien) ekarpenak eta kuotak, horiek ohikoak izan zein ezohikoak izan; eta, berebat, patronu osoek eta patronu elkartuek borondatez ordaindutako kuotak eta ekarpenak, horiek ohikoak izan zein ezohikoak izan, patronatuko kideek onartuta.

c) Etorkizunean, eta zuzenbideak onartutako bideetatik edozeinetatik, fundazioak eskuratutako ondasun eta eskubideak, eta, bereziki, beste pertsona, erakunde eta instituzio batzuek emandako legatuak, dohaintzak, ekarpenak eta diru-laguntzak. Babesletzari eman beharko zaio dohaintzak, legatuak eta herentziak onartu izanaren berri.

d) Ondareak eta fundazioaren jarduerak sorrarazitako fruituak edo errentak, produktuak



edo etekinak, bai eta fundazioak zein zerbitzu eman eta zerbitzu horien ondoriozko ordainsariak ere, indarreko legeriaren arabera.

e) Beste edozein baliabide, legeria aplikagarriaren esparruan.

27. artikulua.- Ondarean izandako aldaketak

Fundazioaren patronatuak, une oro, eta, egoera ekonomikoaren arabera zer komeni den kontuan hartuta, behar den guztietan, aldarazpenak, transformazioak eta bihurketak egin ahal izango ditu fundazioaren kapitalean; horien guztien helburu bakarra izan behar da fundazioaren kapitalak, bere balio izendatuari eusteaz gain, benetako balioa edo eskuratze-balioa ez galtzea.

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea

Fundazioaren ondarea zaindu eta jagoteko, honako erregela hauek beteko dira:

a) Ondasunak eta eskubideak fundazioaren ondare-osagaiak direnean, fundazioaren izenean egon, haren inbentarioan agertu, eta, hala denean, kasuan kasuko erregistroetan inskribatu behar dira.

b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Gainerako ondasunak inskribatzeko modukoak badira, erregistro egokietan inskribatuko dira.

c) Fundazioaren titulartasunekoak badira baloreak eta eskudirua, jabetza-tituluak, gordailu-gordekinak, eta, oro har, jabaria, edukitza, erabilera, luperketa nahiz beste edozein eskubide egiaztatze agiriak, horiek gordailutu egingo dira, fundazioaren izenean, patronatuak erabakitzen duen erakunde horretan.

d) Gainerako ondasun higigarriak zaindu egingo dira, patronatuak erabakitzen duen moduan.



Ondasun edo eskubide horiek guztiak inbentario-liburuan zehaztuko dira. Liburu hori patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta, bertan, patronatuaren ikuskaritzapean, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agerraraziko dira.

II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

29. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtean urtekoa izango da, eta egutegiko urtearekin bat etorriko.

Fundazioak, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, aurrekontu arrunta prestatuko du; aurrekontu horretan, sarrerak eta gastuak modu orekatuan jasoko dira. Aurrekontu hori, azalpen-txostenarekin batera, babesletzari aurkeztuko zaio, urteko azken hiruhilekoan, horrek onetsi dezan.

30. artikulua.- Ekonomia nahiz kontabilitate-arloko betebeharrak

Patronatuak prestatuko ditu inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitzen kontua; horietan islatuko du fundazioaren egoera, ondare, ekonomia eta finantzaren ikuspuntuetatik. Orobat prestatuko du urtean zehar burututako jardueri buruzko oroitidazkia, bai eta ondarearen kudeaketa ekonomikoari buruzko txostena ere; horiek nahikoa izan behar dira, fundazioaren helburuak eta lege-manuak bete direla jakin eta egiaztatzeko. Patronatuak, halaber, aurreko urteko sarrera eta gastuen aurrekontua likidatuko du; eta, ondorio horietarako, legearen xedapenak beteko ditu.

31. artikulua.- Kontu-arrazoiak ematea



Urtean urteko lehenengo sei hileetan, patronatuak babesletzari egiaztatu beharko dio, Fundazioei buruzko Legearen 27. artikulua ezarri moduan, bere kudeaketa bat etorri dela fundazioaren helburuekin.

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARAKO ERABILITZEKO ERREGELAK

32. artikulua.- Diru-sarreraren destinoa eta administrazio-gastuak

1.- Fundazioaren helburuak betetzeko erabiliko dira haren ondasunak eta errentak, destino horri zuzen-zuzenean lotuta daudela ulertzen baita.

2.- Fundazioak, aldian-aldian, bere xedeari berezko zaizkion jarduerak programatuko ditu; eta, horretarako, urtero-urtero, prestazioen plangintza egingo da, eta hori nola gauzatu eta adjudikatuko den erabakiko da.

3.- Edozein kontzeptu dela eta, errenta garbiak eta bestelako diru-sarrerak lortzen badira, orduan, behin horietatik, hala denean, zerga egokiak kenduta, eta, betiere, errentak eta diru-sarrerak lortu direnetik hiru urteko epean, haien %70 gutxienez fundazioaren helburuak betetzeko erabiliko da.

Eratze-unean nahiz geroagoko une batean, ekarpenak egiten badira ondare-zuzkidura gisa, ekarpenok betekizun horretatik salbuetsita geratzen dira.

Gainerako diru-sarrerak fundazioaren zuzkidura handitzeko erabiliko dira, behin administrazio-gastuak kenduta; administrazio-gastu horiek ezin dira izan %20-tik gorakoak, salbu eta, fundazioak zentzuzko eskaera egin ondoren, babesletzak horretarako beren-beregi baimena ematen duenean, indarreko lege- nahiz erregelamendu-xedapenetan agindutakoaren arabera.

IV. TITULUA. ALDARAZTEA, BAT-EGITEA ETA



AZKENTZEA

33. artikulua.- Aldaraztea

Fundazioaren patronatuak estatutu hauen aldarazpena sustatu ahal izango du, baldin eta hori komeni bada, fundazioaren helburuak hobeto betetzeko. Aldarazte-erabakia hartzeko, horren aldeko botoa eman beharko dute patronatuko kideen bi herenek gutxienez.-----

34. artikulua.- Bat-egitea

Patronatuak erabaki ahal izango du, halaber, beste erakunde batekin edo batzuekin bat egitea, baldin eta horrekin fundazioaren xedeari behar bezala erreparatzen bazaio. Erabakia zioduna izan behar da, eta horren aldeko botoa eman beharko dute patronatuko kideen bi herenek gutxienez.-----

35. artikulua.- Azkentzea

Fundazioa azkenduko da:

Estatutu hauetan ezarritako kasu berezi gisa, patronatuak hori erabakitzen duenean.

Kode Zibilaren 39. artikuluan nahiz bestelako legeetan ezarritako arrazoietatik bat gertatzen denean.

3.- Bat-egite prozesuak hori ondorioztatzen duenean.

4.- Epailearen ebazpen irmoak fundazioa desegiten duenean.

36. artikulua.- Azkentze-prozedura

Aurreko artikuluen 1 eta 2. paragrafoek ezarri kasuetan, fundazioa azkendu dadin, patronatuak hori erabaki eta babesletzak hala berretsi beharko du.

Fundazioen Erregistroetatik lege-aginduz zeinek eskumena izan eta horretan bertan inskribatuko dira fundazio honen eraketa, bai eta beronen egintza edo negozio juridiko guztiak ere, legearen arabera



egintza edo negozio horiek inskribatzea beharrezkoa den neurrian.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEI BURUZKO ARAUBIDEA

40. artikulua.- Eratzaile atxikiak

Eraketa-eskriturak eratze-agiriaren izaera du, eta horri atxiki ahal izango zaizkio, hura egiletsi eta gero ere, eta eratzaileen kategoria bereganatuz, beste pertsona fisiko eta juridiko batzuk, baldin eta atxikitze hori 2011. urteko abenduaren 31 baino lehen gertatzen bada.

Aurretiaz finkatutako epe horretan, eratzaile gisa atxikitzeren bat gertatzen bada, eratzaileak edo patronatukide ahaldunek atxikitze hori onetsi beharko dute, hurrengo lerrokadan ezarri moduan; eurek finkatuko dute, orobat, hautagaiek zein laguntza ekonomiko eman beharko duten.

Aurretiaz ezarritako atxikitze-epea bukatzen ez den bitartean, patronatuaren eraketa etenda geratzen da, eta eratze-agirian eratzaileak zein kide izendatu eta kide horiek ahaldunduta geratzen dira, modu mankomunatuan estatutuek patronatuari ematen dizkioten ahalmen guztiak egikaritzeko.

41. artikulua.- Laguntzaile atxikiak

Eratze-eskritura egiletsi eta gero, fundazioari atxiki ahal izango zaizkio, laguntzaile atxiki gisa, pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta haien jarduera edo ekarpena lagungarri gerta badaiteke fundazioaren xedea betetzeko.

Aurretiaz aipatu izaerarekin atxikitze-eskaerak egiten direnean, patronatukideek horiek onetsi beharko dituzte, erabateko gehiengoarekin.

[illegible]